

Lehenaldiko bizipenak kontatzen ditugunean, indikatiboko aditz laguntzaileak erabiltzen dira lehenaldian.

ADITZ LAGUNTZAILEAK LEHENALDIAN

| NOR | | nori | NOR-NORI | | | nor | NOR-NORK | | |
|-------|---------|-------|--------------|------------------------|-----------------------|---------|------------|------------------------|-----------------------|
| | | | | nor 3. p. sing. (hura) | nor 3. p. pl. (haiek) | | | nor 3. p. sing. (hura) | nor 3. p. pl. (haiek) |
| ni | nintzen | niri | zitzaidan | zitzaizkidan | nik | nuen | nituen | | |
| hi | hintzen | hiri | zitzaian/nan | zitzaizkian/nan | hik | huen | hituen | | |
| hura | zen | hari | zitzaion | zitzaizkion | hark | zuen | zituen | | |
| gu | ginen | guri | zitzaigun | zitzaizkigun | guk | genuen | genituen | | |
| zu | zinen | zuri | zitzaizun | zitzaizkizun | zuk | zenuen | zenituen | | |
| zuek | zineten | zuei | zitzaizuen | zitzaizkizuen | zuek | zenuten | zenituzten | | |
| haiek | ziren | haiei | zitzaien | zitzaizkien | haiek | zuten | zituzten | | |

Zuk gu autoz ekarri gintuzun. Guk zuri eskerrak eman genizkizun.

| NOR-NORK | | | | NOR-NORI-NORK | | | | | | | |
|----------|-------------|------------|----|---------------|-------|---------|--------|-----------|----|------|-------|
| nor | | nork | | nork | | nor/zer | | nori | | | |
| ni | nindu | t (da) | n | nik | nik | n | | t(da) | n | niri | |
| hi | hindu | k/n (a/na) | n | hik | hik | h | | k/n(a/na) | n | hiri | |
| hura | (3. p.sing) | ∅ | en | hark | hark | z | i(zki) | o | n | hari | |
| gu | gintu | gu | n | guk | guk | gen | | gu | n | guri | |
| zu | zintu | zu | n | zuk | zuk | zen | | zu | n | zuri | |
| zuek | zintuzte | zue | n | zuek | zuek | zen | | zue | te | n | zuei |
| haiek | (3. p.pl.) | (z) | te | n | haiek | z | | e | te | n | haiei |

25. Berridatzi testu hauek subjektua aldatuz, eta eragiten dituen aldaketak kontuan hartuz.

- Atzo ilunabarrean taberna batera sartu nintzen lagun batekin, eta bertan afaltzea erabaki genuen. Ordaintzeko orduan, konturatu nintzen diru-zorhoa etxean ahaztu nuela. Lagunak esan zidan berak gonbidatuko ninduela, baina nik esan nion bizum bidez itzuliko niola dirua. (zu)

- Asteburuan zinemara joan zineten, eta matematika-irakaslea ikusi zenuten. Hark ez zintuzten ikusi eta zuek ez ikusiarena egin zenuten. Filma bukatu zenean, aretotik ateratzean, berarekin topo egin zenuten. Filma zer iruditu zitzaizuen galdetu zizuen eta gustatu zitzaizuela esan zenioten. (gu)
